

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Kontratazio mahai iraunkorra izendatzea

200102C Dekretua

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 326. artikuluan xedatzen du kontratazio organoek kontratazio mahai baten laguntza izango dutela, baldin eta kontratatze eskumena ez badagokio kontratazio batzorde bati. Kontratazio mahai horrek izango du eskumena eskaintzak balioesteko prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio prozedura negoziatuan, berrikuntzarako elkartzeko prozeduran eta 168.1.b) artikuluan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen diren prozedura negoziatuetan.

Toki erakundeei gagozkiela, bigarren xedapen gehigarriak hau xedatzen du:

(7) Kontratazio mahaiaren buru korporazioko kide bat izango da edo bertako funtzionario bat, eta mahaikide hauek: idazkaria edo haren ordezkari aholkularitzan diharduen organoaren titularrak, kontuhartzailea eta kontratazio organoak korporazioko karrerako funtzionarioen, lan kontratupekoen eta korporaziorako hautatutako artean izendatzen dituenak. Mahai horrek, gutxienez, hiru kide izan beharko ditu. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herena baino gehiago. Idazkaria udalbatzako funtzionario bat izango da.

Mahaiaren osaera kontratazio-organoren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Baliazko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkeran, 21. artikuluan esleitzen dizkidan eskumenak.

Ebatzi dut

Lehenengoa: Legutioko Udalaren kontratazio mahai iraunkorra eratzea.

Bigarrena: kontratazio mahaia kide hauez osatuta egongo da:

– Lehendakaria: Ion Zuazo Zubero, Legutioko Udaleko alkate-lehendakaria, edo hura ordezkatzen duen pertsona.

– Mahaikidea: María Ángeles Otaola Elortegui, Udaleko idazkari kontuhartzailea, edo hura ordezkatzen duen pertsona.

– Kidea: Aitor Izaguirre Emilio-Yus, kirol koordinatzailea, edo hura ordezkatzen duen pertsona.

– Mahaikidea: Estitxu Martínez de Iturrate Santxo, euskara eta kultura teknikaria, edo hura ordezkatzen duen pertsona.

– Mahaikidea: Eneko Ibáñez Gorrotxategi, zinegotzia, edo hura ordezkatzen duen pertsona.

– Idazkaria: Aitziber Criado Goikoetxea, administraria, edo hura ordezkatzen duen pertsona.

Hirugarrena: izendapena interesdunei jakinaraztea, eta ALHAOn eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Legutio, 2020ko urtarrilaren 2a

Alkatea

ION ZUAZO ZUBERO